



## KAUSATIBO MOTAK AZTERTZEN

---

**Arrillaga, Leticia Ainhoa**

**GRADUA/GRADO:** Euskal Ikasketak 4º maila

**TUTOREA/TUTOR:** Pablo Albizu Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila (HEIS).

**SAILA/DEPARTAMENTO:** Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila (HEIS)

## LABURPENA

Lan honetan kausatiboa zer den, zein mota dauden eta mota bakoitzaren ezaugarriak eta eraketa nolakoa den azaldu dut. Kausatiboa eragile batek edo egoera baten aldaketak eragindako ekintza da, hortaz, egoera-aditz bat ez da inoiz kausatiboa izango. Hiru mota bereizten dira: lexikoa, morfologikoa eta analitikoa.

Lehena, inkoatibo/kausatibo alternantzian sartzen diren aditzek osatzen dute, \*edun-ez lagundurik agertzen direnak dira kausatiboak. Egoera-aldaketa aditzek, toki-aldaketa aditzek eta psiko-aditz kausatiboek bakarrik eratu dezakete kausatibo mota hau, eta multzo hauetan sartzen diren aditz guztiak ez. Ikuspegi klasikoak (ikuspegi lexikoa) eta berrinterpretazio konstruktionalistak (ikuspegi sintaktikoa) dioenaren kontra, ezakusatiboen multzoaren aniztasunak, hautapen ezaugarriek eta zenbait argumentu morfologikoen erakusten dute kausatibo mota honen oinarrizko egitura aldaera kausatiboa dela. Horrela, kausatibotik inkoatiborako aldaketa hori erreflexibatze prozesu baten bidez ematen da, eta Chierchicak (2004) eta Reinhartek (2000) prozesu horretan kausa geruza ezabatzen dela badiote ere, Ormazabalek (2008) ez dela horrela erakusten digu; horretarako modirikataile agentiboez, helburu perpausez naiz *nahi* aditzlagunez eta egitura koordinatuez baliatzen da. Kausatibo analitikoa sintaktikoki zein morfologikoki bakuna da.

Kausatibo morfologikoak berriz, morfologikoki konplexua da, sintaktikoki itxura bakuna badu ere; buruz-buruko mugimendua da egitura konplexu horri sintaktikoki itxura bakuna ematen diona. Deustuko Mintegiak(1898) argudio modura erabiltzen dituen Axularren *bere*,*galdetzaileak* eta *uztardurak* erakusten digute buruz-buruko mugimendua gertatzen dela eta ez ESPEZ-erako mugimendua. Kausatibo morfologikoa aditzoinari *-arazi* aditza gehituz eratzen da, nahiz eta euskalki batetik bestera aldaera ezberdinak egon. Gaur egun emankorra ez den *-ra-* kausatiboa egiteko forma zaharra dugu, kausatibo mota honen barnean sartuko lirakeena. Bestalde, kausatibo morfologikoaren kasu ezarketari dagokionez, aditz motaren arabera kasu bat edo beste hartuko du arazleak. Aditz iragangaitz ezakusatiboetan absolutiboan agertuko da, nahiz eta mendebaldean biziduna denean datiboa erabiliko duten. Iragangait ez-ergatiboen kasuan, datiboa da ohikoena. Aditz iragankorretan ere arazlea datiboz markaturik joango da; baina ditransitiboa denean, aditzak bi kasu besterik eman ezin dituen ez eta

hiru argumentu daudenez, menpeko aditzak bere osagarriei dagokien kasua emango die eta subjektuak datiboa den berezko kasua hartuko du.

Kausatibo analitikoa egiteko hiru modu ezberdin daude. Lehen *egin* aditzak subjuntiboan jokatutako perpaus bat hartzen duenean sortzen da. Bigarrean *egin* aditzari *-arazi* atxikitzen zaio eta menpeko perpausa nominalizaturik agertzen da. Azkenik, *-tzera behartu* esamoldearen bidez sortzen dena dugu. Kausatibo analitikoa sintaktikoki eta baita morfologikoki konplexua den kausatiboa da, aditzek ez baitute unitate bakar bat eratzen; Axularren *bere*, *uztardurak* eta hitz ordenak erakusten digute hau.

## AURKIBIDEA

1. Sarrera .....	5
2. Kausatiboa definitzen .....	5
3. Kausatibo motak .....	6
3.1. Kausatibo lexikoa .....	6
3.2. Kausatibo morfologikoa .....	9
3.3. Kausatibo analitikoa .....	10
4. Kausatiboen eraketa .....	12
4.1. Kausatibo lexikoa .....	12
4.1.1. Ikuspegi lexikoa eta sintaktikoa .....	13
4.1.2. Kausatibo aldizkatzearen norabidea .....	16
4.1.3. Kausa egituraren mantentzea .....	18
4.2. Kausatibo morfologikoa .....	21
4.2.1. Eraketarako mugimendua .....	22
4.2.2. Kasu ezarketa kausatibo morfologikoetan .....	27
4.3. Kausatibo analitikoa .....	30
5. Ondorioak .....	32
6. Bibliografia .....	34

## 1. Sarrera

Lanean zehar euskal kausatiboari buruz mintzatuko naiz, dauden kausatibo mota ezberdinez eta haien eraketaren inguruan proposatu diren hipotesiez. Horretarako, lehenbizi kausatiboa definitu eta, gero, nik ontzat eman dudan sailkapena aurkeztuko dut. Beraz, Ortiz de Urbinaren (2003) lanean oinarrituta kausatibo lexikoa, morfologikoa eta analitikoa daudela ikusiko dugu. Orain arte egindako lanetan kausatiboaren sailkapen bera edo antzekoa onartzen bazuten ere, multzo bakoitza bere aldetik zegoen aztertuta, beren artean uztartu gabe. Hiru kausatibo mota hauen ezaugarri zehatzak bilduko dituen lan bat egitea da nire helburua, bakoitzaren bereizgarriak zein diren adieraziz eta beraien arteko ezberdintasunak azaleratuz. Kausatibo lexikoari dagokionez, ikuspegi klasikoak dioenaren kontra kausatibo mota honen oinarritzko egitura aldaera kausatiboa dela defendatuko dut, horretarako Ormazabalaren (2008) argudioak nire eginez. Lan honetan berean oinarrituko naiz kausatibotik inkoatiborako aldaketa erreflexibizatze prozesu baten bidez ematen dela esateko eta baita Chierchiak (2004) eta Reinhartek (2000) proposatzen dutenaren aurka prozesu horretan geruza kausatiboa ezabatzen ez dela defendatzeko. Ondoren, kausatibo morfologikoa buruz-buruko mugimenduaren bidez eratzen dela ikusiko dugu, eta baita kausatibo mota honetan kasu ezarketa nola ematen den. Bukatzeko, kausatibo analitikoa sintaktikoki eta morfologikoki konplexua dela erakusteko zenbait argudio emango ditut. Horiek horrela, talde bakoitza morfologian, syntaxian eta semantikan nola portatzen den erakutsiko dut lanean zehar; hiru arlo hauek elkartzen dituen lan bat denez, interes handikoa suerta daitekeela uste dut.

## 2. Kausatiboa definitzen

Eragile batek edo egoera baten aldaketak eragindako ekintza gisa deskribatzen du kausatiboa Ortiz de Urbinak (2003). Kausatiboak eratzeko forma zaharra *-ra-* artizkia dugu, jada emankorra ez dena baina oraindik ere hitz askotan ageri zaiguna. Hala ere, hitz hauetariko gehienetan ez du kausatibo esanahia; izan ere, hizlaria ez da konturatzen honen presentziaz lexikalizaturiko formak baitira gehienak. Honen adibide ditugu *erakutsi < ikusi, erakarri < ekarri, eraman < eman, edo erantzun < entzun*.

Baina esan bezala, gaur egun *-ra-* artizkia ez da morfema emankorra eta beste modu batzuk daude kausatiboa sortzeko. Ortiz de Urbinak (2003) egindako sailkapenari jarraiki, lan honetan hiru kausatibo mota bereiziko ditut: lexikoa, morfologikoa eta

analitikoa<sup>1</sup>. Semantikaren aldetik oso hurbil dauden egiturak badira ere, sintaxiari eta morfologiari erreparatuz gero, konturatuko gara hauen artean ezberdintasun nabariak daudela. Aipatutako *-ra-* kausatibo zaharra morfologikoaren taldean sartuko litzateke.

### 3. Kausatibo motak

Sailkapenaren irizpidea multzo bakoitzaren osaera semantikoa, morfologikoa eta sintaktikoa da. Hiruak dira semantikoki konplexuak. Morfologikoki, ordea, kausatibo morfologikoa eta analitikoa bakarrik dira konplexuak, kausatibo lexikoa bakuna da. Sintaktikoki ere bakuna da azken hau; berriz, analitikoa konplexua da aditzek ez baitute unitate morfologiko bat osatzen. Aurrerago ikusiko dugu kausatibo morfologikoak hitz elkarketa bidez eratzen direla, horrela sintaktikoki itxura bakuna hartuz.

#### 3.1. Kausatibo lexikoa

Lehenik, kausatibo lexikoa dugu. Inkoatibo/kausatibo alternantzian sartzen diren aditzak dira (*hil, garbitu, nahastu*, etab.); haietan trantsitiboa izango da kausatiboa. Ekintzaren subjektua, *arazlea* deitua, ekintza baten eragilea da aditz hauetan; goian aipatutako egoera horren eragilea, hain zuzen. Alternantzia honetan aditz inkoatiboak *izan* aditz laguntzailearekin agertzen dira; besteak, berriz, *\*edun*-ez lagunduta ikusiko ditugu.

- (1) Baloia puskatu da.
- (2) Norak baloia puskatu du.

Beraz, goian eragile batek edo egoera baten aldaketak eragindako ekintza gisa deskribatzen badugu kausatiboa, kausatibo lexikoaren multzoan sartzen diren aditz guztiek egoera aldaketako aditzak izan behar dutela esaten du Ormazabalek (2008). Hau da, zerbaitek edo norbaitek eragindako situazio baten aldaketa adierazten duten aditzak direla; ez bakarrik kausatiboa adierazten duten aditzak, kausatibo/inkoatibo aldizkatzean sartzen diren aditz guztiak baizik. Izan ere, bukaerako egoera adierazten duten adjektiboetatik (*zikin > zikindu, alai > alaitu*) eta izenetatik (*kezka > kezkatu*) deribatutako aditzak dira. Hortaz, Dixonek (2002) eta Oyarçabalek (2002) diotenaren alde egingo dut, hau da, egoera-aditzek orokorrean ez dutela kausatibo lexikoa eratuko.

---

<sup>1</sup> Deustuko Mintegiak (1989) Ortiz de Urbinaren (2003) sailkapen bera egiten du, nahiz eta kausatibo bakuna, tartekoa eta konplexua izendatzen dituen. Oyarçabalek (2002) ere sailkapen bera onartzen du, kausatibo morfologiko eta lexikoaz bakarrik hitz egiten duen arren.

(3)-ko adibidean ondo ikusten da hori; izan ere, esaldia gramatikala izan arren ez du esanahi kausatiborik.

(3) Norak jainkoarengan sinesten du.

Bestalde, esan beharra dago egoera aldaketa deskribatzen duten aditz guztiek ez dutela inkoatibo/kausatibo alternantzian parte hartzen: badaude zenbait aditz aldaera ezakusatiboa soilik dutenak (*erori, iritsi, etorri*) eta beste batzuk aldaera iragankorra bakarrik onartzen dutenak (*eman, jan, ekarri*). Azken hauek ez dute inoiz kausatiboa eratuko, aldizkatzean parte hartzen duen aldaera iragankorrak bakarrik eratu dezakeela kausatibo lexikoa dio Dixonek (2002). Honen adibide dugu (4), erabilitako aditz iragankorrak perpaus gramatikala ematen badigu ere, ez du interpretazio kausatiborik (*'emanarazi'*).

(4) Baloia eman dizut.

Egitura lexiko eta sintaktikoan halabeharrez agertzen ez diren kausazioaren propietate bi dira aditz iragankor, iragangaitz edo aldizkatzeko aditzen arteko bereizketa sortzen dutenak. Alde batetik, aldaketa eragiten duen kausaren jatorria dugu eta, bestetik, kausaren theta-rola. Lehenari dagokionez, kausa kanpoko edo barnekoa den, aldizkatzean parte hartzen duten aditzak edo aditz iragangaitz soilak, edo aditz iragankor soilak izango dira. Barneko kausazioari dagokionez, arazle baten beharrik gabe aldaketa jazotzen duten aditzak dira; *inausi, irakin* eta *loratu* esaterako. Aditz hauek egoera aldaketa bat islatzen dute, baina kanpoko kausa batek eraginda ez dena, berezko duten kausa baten ondoriozkoa dena baizik; eta barneko kausa hau ez da islatzen ez gramatikan, ez lexikoan, ez sintaxi-egituran eta ezta interpretazio semantikoan ere. Argi ikusten da hau (5) adibidean, non *loratu* aditzak inork eragindako aldaketa bat erakusten duen: landarea loreak ez izatetik loreak izatera igaro da; loreen berezko propietate baten ondorioz gertatutako ekintza da hau, ez norbaitek edo zerbaitek eragindakoa. Kausa barnekoa denean, aditzak iragangaitzen multzoan sartzen dira, eta orokorrean ezakusatiboak izaten dira euskaraz. Baina, edonola ere, hizkuntzen arteko ezberdintasunak daude:

(5) Balkoiko lore guztiak loratu ziren atzo.

Aldiz, aldaketa eragiten duen kausa kanpoko denean, hau da, ekintza eragiten duen norbait edo zerbait beharrezkoa denean, aldizkatzean parte hartzen duen aditza edo aditz

iragankorra izango dugu, aipatu bigarren propietate bereizgarri horren arabera. Propietate honek aditzak hartzen duen kanpo argumentuaren theta-rolarekin du zerikusia. Ikusi Ormazabalen (2008: 8) hurrengo adibideak:

- (6) a. Aitak umea jantzi zuen.
  - b. \*Soineko urdinak neska jantzi zuen.
  - c. Gaueko dantzaldiak gazteak jantzi zituen.
- (7) a. Norak atea ireki/itxi zuen.
  - b. Giltzak atea ireki/itxi zuen.
  - c. Haize kolpe batek atea ireki/itxi zuen.

Zenbait aditzek, (6) adibidekoek esaterako, egilea bakarrik onartzen dute kanpo argumentuzat, baina beste batzuek aukera zabalagoa erakusten dute fokua egoera aldaketan dagoelako jarrita. (7)-n ikusten denez, egilea ez ezik, bitartekoa eta egoera ere izan daitezke aditzaren kausa. Azken hauek aditz iragankor/iragangaitz aldizkatzean pate hartzen dutenak dira, eta kanpo argumentuaren eremu tematikoa murriztua dutenak, aldiz, kausatibo alternantzian parte hartzen ez duten iragankorrak. Honek ez du esan nahi, ordea, kausatibo aldizkatzean sartzen ez diren bestelako aditz iragankor eta iragangaitzek aipatu beste bi multzo horietakoak izan behar dutenik.

Beraz, kausatibo lexikoan parte hartzen duten aditzak kanpoko kausa dutenak eta hauen artean kanpo argumentuaren eremua murriztua ez dutenak dira. Baina esparru honetan sartzen diren aditz guztiak ere ez dira zilegi kausatibo lexikoa sortzeko. Izan ere, kausatibo lexikoa zorrotza da aditzak hartzerako orduan, eta Oyarçabalek (2002) erakusten digun moduan, ez ditu subjektu ergatiboa duten aditzak ez aditz deponenteak onartzen. Beraz, NOR aditzak izango dira kausazio aldizkatzean parte hartzen dutenak, baina multzo honetako guztiak ere ez dira zilegi; kausatibo lexikoak egoera aldaketako aditzak (*hil, hautsi, zabaldu*), toki-aldaketako aditzak (*atera, hurbildu, urrundu, alboratu*) eta psiko-kausatiboak (*haserretu, izutu, poztu*) bakarrik onartzen ditu<sup>2</sup>; eta gainera, multzo hauetan sartzen diren aditz guztiak ez.

Egoera aldaketako aditzak barne-argumentuaren itxuran edo izaera fisikoan aldaketa adierazten dutenak eta batez ere izenondo edo izen batetik eratorriak direnak bezala

---

<sup>2</sup> Murrizketa honi jarraiki Ormazabalek (2008) hiru multzo bereizten ditu kausatibo lexikoetan: aldaketa fisikoa islatzen dutenak (*puskatu, urtu, zikindu*), aldaketa psikologikoa adierazten dutenak (*poztu, haserretu, izutu*) eta toki aldaketa erakusten dutenak (*atera, hurbildu, urrundu, alboratu*).



definitzen ditu Oyarçabalek (2002); hala ere, barne-argumentua biziduna denean hiztun batzuek aldizkatzea onartzen dute baina beste batzuek ez, eta berdina gertatzen da aldaketa jasaten duen argumentua landarea denean. Toki-aldaketako aditzei dagokienez, adberbio edo postposiziodun forma batetik eratorriak direnek bakarrik onartzen dute kausatibo aldizkatzea, nahiz badauden euskalkien arteko ezberdintasunak aditz batzuetan.

Kausatibo mota honen beste bereizgarri bat arazlean dagoela erakusten digu Dixonek (2002). Izan ere, Oyarçabalen (2002: 273) lanetik hartutako hurrengo adibideek erakusten dutenez, arazlea zuzena denean bakarrik erabil daiteke kausatibo lexikoa. (8a) zuzena da *Oswaldek* berak hil zuelako *Kennedy*, baina (8b) ez da zuzena *erregeak* ez duelako zuzenean hil preso, honek hartutako erabakiek edo bestelakoek hil dute.

- (8) a. Oswaldek tiroz hil zuen Kennedy.
- b. \*Erregeak gosez hil zuen preso.

### 3.2. Kausatibo morfologikoa

Bigarrenik, kausatibo morfologikoa dugu. Aurrekoa ez bezala, hitz elkarketa bidez eratzen da; izan ere, aditzoinari *arazi* aditza atxikitzea beharrezko du kausatiboa adierazteko. Euskalkiaren arabera aldaera ezberdinak ageri zaizkigu: *erazi*, *arazi*, *erazo*, *arazotu*, *eragin*, etab., zeintzuek aipatutako *-ra-* forma zaharra agertzen duten. Baina aditz berari ezin zaio morfema kausatibo bat baino gehiago gehitu, ondoko hitzaren ez-gramatikaltasuna horren adibide: \**etorrerazerazi*. Oyarçabalek (2002) esaten digu egoera-aditzak<sup>3</sup> ez ezik, gainontzeko guztiak onartzen dituela kausatibo morfologikoak; beraz, ez da kausatibo lexikoa bezain zorrotza aditzak hautatzerako orduan. Mendebaldean eta ekialdean kausatibo klase hau egiteko modua ezberdina dela erakusten digu Ortiz de Urbinak (2008). (9) eta (10) adibideetan ikusi daitekeen bezala, mendebaldean atzizkia partizipioari atxikiko bazaio ere, ekialdean partizipioari elkartuko zaio:

- (9) Poliziak kotxea geldi-tu eraz-i zuen. (Mendebaldean)
- (10) Irakasleak mahai zikina garbierazi zion umeari. (Ekialdean)

---

<sup>3</sup> Hala ere argi uzten du baieztapen hori ez dela guztiz betetzen, egoera-aditzei buruz esaten duena orokorregia baita.

Baina kausatiboan ematen den aldaketa bakarra ez da *erazi* aditza gehitzea. Euskaltzaindiak (1987) erakusten digunez, laguntzailea ere aldatu egiten da beste pertsona marka bat sartzen dugulako. Horrela, ekintzaren eragilea sartzekoan nor adizkiak nor-nork bilakatuko dira ekialdean eta nork-nori mendebaldean. Adizkia nor-nork sailekoa denean, nor-nori-nork izatera aldatuko da. Baina orain ez naiz xehetasun gehiagotan sartuko, hau aurrerago azalduko baitut, kausatibo morfologikoen kasu ezarketari dagokion atalean hain zuzen (4.2.2.).

Goiko adibideek erakusten duten moduan, kausatibo morfologikoarekin eratutako perpausak sintaktikoki itxura bakuna dute, baina semantikaren ikuspuntutik bi esanahi dituzten esaldiak dira. Har dezagun (10), adibidez: *umeak mahai zikina garbitu duela* daukagu alde batetik, eta *irakasleak zerbait eragin duela* bestetik. Morfologikoki begiratuta, zaila da (9) eta (10) bezalako perpausak bakuntzat hartzea, eta ondorioz sakoneko egituran konplexuak direla proposatzen dute Deustuko Mintegiak (1989) eta Ortiz de Urbinak (2003), eta nik ere ikuspegi horren alde egingo dut lan honetan. Izan ere, hitz elkartuak diren aldetik, elkartzekoan unitate morfologiko bakarra osatzen badute ere bi unitate ezberdinen uztarduraz eratuak dira.

Dixonek (2002) esaten du kausatibo lexikoa arazlea zuzena denean bakarrik erabil daitekeela eta morfologikoa zeharkakoa denean; Oyarçabalek (2002: 273) honen alde eginez adibide batzuk ematen ditu:

(11) a. \*Oswaldek tiroz hilarazi zuen Kennedy.

b. Erregeak gosez hilarazi zuen presoak .

Gorago lexikoaren kasuan zuzen dabilzala erakutsi dut, baina hauen kontra kausatibo morfologikoak arazle zuzena ere onartzen duela erakusten du (10) adibideak, *irakasleak* berak eragiten baitio eraziari *mahai zikina garbitzea*. Hortaz, kausatibo morfologikoa arazle zuzenarekin eta zeharkakoarekin izango da onargarria; eta beharbada bien arteko ezberdintasunak araziaren bizidun/bizigabe alternantziarekin du zerikusia.

### 3.3. Kausatibo analitikoa

Azkenik, kausatibo analitikoa deskribatuko dut. Kausatibo mota hau sortzeko *egin* aditza erabiltzen da, eta honek subjuntiboan jokaturako perpaus bat hartzen du. (12)-ko adibidean garbi ikusten da bi aditzek ez dutela bat egiten; hortaz, sintaktikoki ez ezik

morfologikoki ere konplexua da kausatibo analitikoa. Hala ere, (13)-n ikusten den moduan, badago kausatibo analitikoak egiteko beste modu ohikoago bat. Ortiz de Urbinak (2003) dio azken honetan arazleak eragindako egoera perpaus nominalizatu baten bidez adierazten dela eta *egin* aditzari *-eraz(i)* atzizki morfologikoa atxikitzen zaiola.

(12) Ikasleak zikindutakoa garbi zezan egin zuen irakasleak.

(13) Irakasleak zikindutakoa garbitzea eginarazi zion ikasleari.

Bi esaldi hauen arteko beste ezberdintasun bat menpeko perpausaren subjektua da. (12) perpausaren ergatibo markarekin ageri den arren, (13) adibidean datiboarekin dago markatuta menpeko subjektua eta honek aditz nagusiarekin egiten du komunztadura.

Aipatutako bi kausatibo analitiko horiek sortzeko jokatutako aditzez eta nominalizazioez baliatzen gera. Badago, ordea, hauetatik bereiziz postposizio batez baliatuz eratzen den kausatibo analitiko mota bat, *-tzera behartu* esamoldearen bidez eratzen dena hain zuzen. Zubiri eta Zubirik (2012) erakusten digute kausatibo honetan adizkia nor-nork izango dela beti. Baina esamolde hau ez da aurreko kausatiboen baliokidea, honetan araziak ekintza behartuta, bere nahien kontra egiten duela adierazten baita beti. Hona hemen adibide bat:

(14) Iker arropa garbitzera behartu zuen Norak.

Hartzen dituen aditzei dagokienez, aurreko beste bi kausatiboek bezala honek ere ez ditu egoera-aditzak onartzen; bai, ordea, lexikoetan zilegi ez diren aditz iragankorrak.

(15) \*Norari hiru hizkuntza jakitea eginarazi diot.

(16) Entrenatzaileak baloia ematea eginarazi dit.

Kausatibo analitikoa definitzen bukatzeko, labur aipatuko dut kausatibo morfologikoak bezala arazle zuzena eta zeharkakoa, biak, onartzen dituela. Ikusi ondoko adibideak:

(17) Izurrite horrek jende asko hiltzea egin zuen.

(18) Irakasleak etxerako lanak bukatzea egin zion ikasleari.

Laburbilduz, hiru kausatibo mota bereizten ditugu. Lehenik, kausatibo lexikoa dugu, inkoatibo/kausatibo alternantziako aditz iragankorren multzoak osatzen duena; ohikoena

den *arazi* aditzaren gehitzeaz eratzen den kausatibo morfologikoa ondoren; eta azkenik gutxien erabiltzen den kausatibo analitikoa, *egin* aditzak subjuntiboko perpaus bat hartzen duenean osatzen dena. Ikusitakoaren arabera, oro har egoera-aditzek ezin dute esanahi kausatiboa izan, hiruretako batek ere ez dituelako onartzen. Aditz mota hauez aparte, kausatibo morfologikoak eta analitikoak gainontzeko aditz guztiak onartzen dituzte, lexikoak ukatzen dituen aditz iragankorrek ere; baina kausatibo lexikoak nahiko zorrotz jokutzen du aditzak hautatzerako orduan. Gainera kausatibo lexikoa da arazlearen hautapenean murriztapenak agertzen dituen bakarra, izan ere, beste biek ez bezala, ez du zeharkako arazlerik onartzen.

Ortiz de Urbinak (2003) ere esanahi ezberdintasun bat ikusten du, oraingoan analitiko eta morfologikoen artekoa. Analitikoek morfologikoen baino indar gutxiago dutela esaten du, azken hauek arazleak presio gehiago eragiten duela araziarengan esan nahi du. Dena den, kausatibo analitikoetan datibo marka jarritz arazlearen presioa handitu daitekeela uste du.

#### **4. Kausatiboen eraketa**

Hiru kausatibo mota definitu eta beren arteko ezberdintasun nagusiak azaldu ostean, hauek nola eratzen diren ikusiko dugu. Horretarako Ormazabalek (2002) eta Deustuko Mintegiak (1989) egindako lanak izango ditut oinarri.

##### **4.1. Kausatibo lexikoa**

Kausatibo lexikoaren eraketa azaltzen hasi aurretik gogoratu behar dugu inkoatibo/kausatibo aldizkatzean parte hartzen duten aditzak direla. Honek esan nahi du bat dela jatorrizkoa eta bestea hartatik eratorritakoa. Hurrengo atalean hori da eztabaidatuko dudana, bietako zein den jatorrizkoa eta zein eratorria.


Kausatiboaren aldizkatzearen eraketaren inguruan hipotesi ezberdinak egin dira, batzuk lexikoitik bideratutakoak, joskeran islatzen den kausatibo aldizkatzea lexiko egituran dagoela defendatzen dutenak, eta besteak ikuspegi sintaktikoari jarraitzen diotenak. Azken ikuspuntu honen arabera, aldizkatzearen oinarria joskeran legoke; analisi klasikoaren berrinterpretazio “konstrukzionalistak” egiten du honen alde, Oyarçabalek (2002) esaterako.

Hipotesi lexikalistaren arabera, lexikoiko sarrera guztietan esanahiari lotuta agertzen da argumentu egitura eta kausatibo lexikoetan parte hartzen duten aldizkatzeko aditzen bikoiztasuna lexikoan agertzen da. Honen barnean ere bi ikuspegi ezberdin bereizten dira. Alde batetik, aldizkatzearen oinarria aldera inkoatiboa dela eta honi arazle argumentu bat gehitzen zaiola argudiatzen dutenak; analisi klasikoa iritzi honen aldekoa da, (Chomsky 1981). Eta bestetik, aldizkatzea aldaera kausatibotik abiatzen dela defendatzen dutenak, Chierchia (2004), Reinhart (2000) eta Ormazabal (2008) adibidez.

#### 4.1.1. Ikuspegi lexikoa eta sintaktikoa


Analisi klasikoak defendatzen du aldizkatze horretako aditz ezakusatiboaren egitura lexiko-kontzeptualean kausa adierazten duen beste geruza bat gehituz aditz iragankorrera iristen garela, geruza berri horren argumentu posizioa sintaxiko subjektu iragankorrek betetzen duelarik. Berrinterpretazio “konstrukzionalistek” eransketa bera onartzen dute, baina egitura lexiko-kontzeptualean beharrean, gehiketa sintaxi-egituran ematen dela proposatzen dute. Hau da, (19) adibidearen ordainetan (20) bezalakoa ematen dute, non aditz iragangaitzaren sintaxi-egituraren gainean aditz iragankorren kausazioa eta kanpo argumentuaren propietateak biltzen dituen proiektzio bat agertzen den.

- (19) a. Edaria nahastu da                       $\rightarrow$  nahas(tu)-ren EL-K:  $\lambda x$  [bihurtu [nahasi (x)]]  
 b. Amonak edaria nahastu du  $\rightarrow$  EL-K:  $\lambda y \lambda x$  [y arazi [bihurtu [nahasi (x)]]]




Oyarçabalek (2002) dio kanpo argumentuaren agerpena joskerako buru berezi bati lotua dela, aS-aren buruari hain zuzen; eta bestalde, aditz kausatiboek ere buru bat dagokiela, araz deituko duguna. Ikuspegi honek kausatibo lexikoetarako ez ezik, beste bietarako ere balio du. Ezberdintasuna da azken hauetan predikatua aS osoak aukeratzen duela eta


kausatibo lexikoan, berriz, Araz buruak. Hortaz, Oyarçabalek (2002) (21) bezalako egitura bat proposatzen du.



Baina kausatibo lexikoetan Araz eta aS buruaren arteko erlazioa berezia da. Oyarçabalek (2002) erakusten digu Pylkkanenek (2002) aztertu duenaren arabera kausazioa eta kanpo argumentua ez datozela elkarrekin hizkuntza guztietan. Horrelako kasuetan, aditzaren balentzia ez da aldatzen eta morfema kausatibo bat besterik ez da eransten; japoniera eta finlandieran gertatzen da hau esaterako. Baina kausatibo lexikala morfologikoki zero markatuta duten hizkuntzetan, euskaran eta ingelesean adibidez, kanpo argumentua agertuko da beti kausazioarekin batera. Azken hauetan *Araz* burua *a* buruari, hau da, kanpo argumentua duen buruari, atxikitzen zaio eta buru bakar bat osatzen dute. Elkarketa hau *Boz bilketa* izenez ezagutzen dena da. Honen arabera, euskarazko kausatibo lexikoaren egitura (22) bezalakoa litzateke, eta ez lehenago Oyarçabalek (2002) proposatutako (21). Gauzak horrela, *Boz bilketa* onartuz kausatibo lexikoaren eta morfologikoaren arteko ezberdintasun sintaktikoa ikus dezakegu.



Ikusi dugu aditz hautapenaren murrizketan hiru aditz mota soilik hartzen dituela kausatibo lexikoak: egoera aldaketako aditzak, toki aldaketako aditzak eta psiko-kausatiboak. Oyarçabalek (2002) esaten du aditz hauek ez dutela sintaktikoki egitura bera erakusten. (23)-k erakusten du bakoitzaren egitura: lehena egoera aldaketako aditzei dagokiena da, eta (23b)-koa, berriz, psiko-kausatiboetara eta (*Nora beldur da*) toki-aldaketako (*Nora atera da*) aditzei dagokiena<sup>4</sup>.



(21a)-k erakusten duenez, egoera-aditzetan *bihur* aditzak izena edo izenordaina aukeratzen du eta bestelako morfologiarik gabe inkorporatzen du bere egiturara. Toki-aldaketako aditzek eta psiko-aditz kausatiboek, biek, (23b) bezalako egitura sintaktikoa erakusten badute ere, beren arteko ezberdintasun nabari bat dago. Psiko-kausatiboetan, egoera aldaketako aditzetan bezala, *bihur* aditza da bere osagarria aukeratzen duena; baina kasu honetan Ø markatua den postposizio bat hartuko du; gero, honi buruz-buruko mugimenduaren bidez bere osagarriaren burua inkorporatuko zaio. Toki-aldaketako aditzetan, berriz, *joan* aditza da bere osagarria aukeratzen duena. Hori berezko norabidea duen postposizio adlatibo bat edo adberbio bat izan daiteke.

Laburbilduz, ikuspegi lexiko klasikoak eta ikuspegi sintaktiko konstrukzionalista berriek inkoatibotik abiatzen den kausatibo bat defendatzen dute, kausa geruza bat gehituz eratzen dena.

<sup>4</sup> (23)-ko adibideak *Boz bilketari* jarraiki eginak dira, ez dira Ormazabalek (2002) ematen dituenaren berdinak.

#### 4.1.2. Kausatibo aldizkatzearen norabidea

Aurrekoen kontrara, hipotesi hauen ezintasunaz mintzatuko naiz, horretarako Ormazabalen (2008) zenbait argudio emanaz. Hortaz, nire lanaren helburuetako bat euskaraz eta inguruko hizkuntzetan kausatibo aldizkatzea ezakusatiboaren formatik abiatzea ezinezkoa dela erakustea da.

Ormazabalen (2008) lehen argudioa ezakusatiboaren multzoaren aniztasunean oinarritzen da. Alabaina, goian egindako sailkapenaren arabera, aditz iragangaitzak bi talde edo multzo ezberdinetakoak izan daitezke: kausa barnekoa duten iragangaitz soilak (*erori*, *etorri*) edo kausatibo alternantzian sartzen direnak eta kausa kanpokoak dutenak (*hil*, *puskatu*). Azken hauek ustez kausaziorik gabeak direnez, adierazten duten egoera aldaketari buruzko informazioa beren egitura lexiko-kontzeptualak biltzen du, aldizkatzean sartzen ez diren aditz iragangaitzekin gertatzen den bezala. Hau horrela izango balitz, (24) eta (25) estrukturalki berdinak izanik, ez legoke modurik jakiteko bietako zeinek bilduko lukeen kausazioa, eta ondorioz, kausatibo aldizkatzearen multzoa zehazteko eta honen jabekuntzarako arazoak izango genituzke.

(24) a. Lorea loratu da.

b. *Lora(tu)* aditzaren EL-K:  $\lambda x$  [bihurtu [koskor (x)]]

(25) a. Edaria nahastu da.

b. *Nahastu* aditzaren EL-K:  $\lambda x$  [bihurtu [nahasi (x)]]

Bestalde, aipatutako ezakusatiboaren sailkapenarekin inkoatibo/kausatibo alternantzian parte hartzen duten aditz ezakusatiboak kanpo kausa dutenen multzoan sartzen dira. Hortaz, analisi klasikoari jarraiki, egitura lexikoan islatzen ez den kanpo kausa bat erabiltzen ari gara sailkapen hau egiteko. Gauzak horrela, errazagoa litzateke pentsatzea aldizkatzeko aditz ezakusatibo horren egitura lexikoan ere kausatiboa badagoela.

Analisi klasikoak eta berrinterpretazio “konstrukzionalistak” proposatzen duten norabidearen kontra egitura kausatibotik abiatuko bagina, kanpoko eta barneko kausaren arteko bereizketak aditza iragankorra edo iragangaitza den erakutsiko liguke bai irudikapen lexiko-semantikoan bai sintaktikoan. Hemen, kanpoko kausa azaltzen dutenak oinarrian kausari dagokion irudikapen estrukturala biltzen dutenak bakarrik izango lirateke, hau da, iragankorrak. Bestalde, aditzak aldizkatzean parte hartzen duen edo iragankor soila denari buruzko informazioa kausa esparru zabala onartzen duten



aditzen eta egilea bakarrik onartzen dutenen arteko bereizketak emango liguke. Beraz, iragangaitzetik iragankorrera igarotzeak sortzen dituen arazoak konpondurik agertzen dira erlazioaren norabidea aldatuz gero.

Omarzabalen (2008) bigarren argudioa hautapen ezaugarrien inguruan harilkatua da, aldizkatzean sartzen diren aditzek murriztapen berdinak erakusten baitituzte honi dagokionean. Kasu gehienetan, beti horrela ez bada ere, aldaera iragankorrek hartzen dituen objektuak aldaera iragangaitzak ere onartuko ditu subjektu modura, eta Ormazabalen (2008: 16) (26) eta (27) adibideek iragartzen dutenez, iragankorrek ukatzen dituenak iragangaitzak ere ez ditu onartuko.

- (26) a. \*Edalontzia/\*irratia/papera/jantzia urratu da. (inkoatibo)  
b. Peruk \*edalontzia/\*irratia/papera/jantzia urratu du. (kausatibo)
- (27) a. Edalontzia/irratia/ (\*) papera/ (\*)jantzia hautsi da. (inkoatibo)  
b. Peruk edalontzia/irratia/ (\*) papera/ (\*)jantzia hautsi du. (kausatibo)

Baina esan bezala, hau ez da kasu guztietan betetzen: aditza bere adiera figuratuan erabiltzen denean ez da beteko; eta hauetan, berriro ere Ormazabalenetik (2008: 17) hartua den (28)-k erakusten du aldaera iragankorrek izango duela beti hedadura zabalagoa.

- (28) a. Mirenek hitza/kontratua/munduko errekorra hautsi du. (iragankor)  
b. \*Hitza/kontratua/munduko errekorra hautsi du. (iragangaintz)

Gauzak horrela, kausatibo aldizkatzeen analisi klasikoa onartuko bagenu, iragankorra iragangaitzetik deribatua den aldetik, azken honen egiturak aldaera iragankorraren aukera guztiak gorde beharko lituzke, baina (28) adibideak erakusten digu hori ez dela horrela. Beraz, aditzen hautapen ezaugarriek ere erakusten digute deribazioa ezin daitekeela ezakusatibotik iragankorrera izan, eta hauen arteko erlazioa onartzekotan, halabeharrez, deribazioaren norabideak alderantzizkoa izan behar duela.

Ematen dituen azken argudioak morfologikoak dira, bata klitiko erreflexiboetan erroturikoa eta bestea eratorpen atzizki kausatiboetan. Lehenari dagokionez, Ormazabalek (2008) azaltzen digu Chierchia (2004 [1998]) ohartu zela hizkuntza erromanikoetako aldaera inkoatiboak *se* klitikoarekin markaturik ageri diren bitartean, aldaera kausatiboak markarik gabe azaltzen direla, eta *se* hori erreflexiboetan erabiltzen

den bera dela. Ormazabalek (2008) ziurtatzen du, gazteleraz, klitiko horren erabilera aldizkatzean parte hartzen duten ezakusatiboek bakarrik onartzen dutela, alternantzia honetan sartzen ez direnak, ordea, ez: *\*existirse*, *\*vivirse*, *\*andarse*. Honekin berriro ere kausarik gabeko oinarritzko forma inkoatibo batetik abiatzearen ezintasuna frogatzen du, horrela izatekotan, ezakusatibo guztiek onartu beharko luketelako. Deribazioa kontrako norabidean ematen dela onesten badugu, hau da, iragankorretik abiatuta ezakusatiboa lortzen dugula, erraz antzematen da iragankorretik eratorritako ezakusatiboek onartzen dutela *se* klitikoa, eta besteez, alternantzian sartzen ez direnek, ez.

Eratorpen atzizki kausatiboek ere ondorio berera garamatzate. Ormazabalek (2008) dioenaren arabera, hizkuntza erromanikoetan kausatibo aldizkatzean parte hartzen duten aditzetako asko adjektibo edo izen bati esanahi kausatiboa duten bi atzizki erantsiz eratzen dira (*solidificar*, *simplificar*, *cristalizar*, *organizar*). Honek esan nahi du eratzen den aditzaren ardatza elementu kausatibo bat dela; hortaz, aditzaren ardatza kausa elementu bat izanda, logika handiagoa dauka pentsatzeak oinarrian dagoen aditza kausatiboa dela eta ez inkoatiboa.

#### **4.1.3. Kausa egituraren mantentzea**

Kausatibo aldizkatzearen analisi klasikoak proposatzen duen inkoatibotik eratorritako kausatiboaren ezintasuna argudiatu ondoren, oraingoan ere Ormazabalen (2008) lanean oinarriturik, Chierchiak (2004) eta Reinhartek (2000) proposatzen dutenaren kontra egingo dut. Beraiek bezala aldaera iragankorra oinarritzko forma dela eta aldaera inkoatiboa erreflexibatze prozesu baten bidez eratzen dela onartuko dut; baina diotenaren kontra, prozesu horren ondorioz kausa maila estrukturaliki galtzen ez dela argudiatuko dut.

Chierchiak (2004) kausatibo/inkoatibo aldizkatzean sartzen diren aditzetan eta aditz kausatibo/erreflexiboetan ematen den erreflexibatze erregela bera dela esaten du, nahiz eta lortzen diren bi predikatu horien artean ezberdintasunak egon. Ezberdintasun hauek azaltzeko esaten du inkoatibo/kausatibo aldizkatzean erreflexibatze prozesuak kausari dagokion geruza ezabatzen duela, kausatibo/erreflexiboetan gertatzen ez dena. Baina bi aditz aldizkatzeetan prozesu bera ematen dela proposatuko bagenu, prozesu horrek berdin funtzionatu beharko luke aditz bikote bietan; eta Chierchiak (2004) biei izen bera ematen badie ere, bi prozesu ezberdin proposatzen ari da.

Hortaz, Ormazabalek (2008) proposatzen duena da bi predikatuetan erreflexibatze prozesua berdin ematen dela, eta predikatu bakoitzaren kausak propietate ezberdinak izateari zor zaiola bien arteko bereizketa. Kanpo argumentuaren eremu tematikoa egilera murriztua duten aditzak erreflexiboak izango dira; aukera zabalagoa onartzen dutenak, berriz, inkoatiboak. Ezberdintasun honetatik abiatuta kausatibo aldizkatzean sartzen diren aditzak eta aditz erreflexiboak bereizten dituzten bestelako ezberdintasun estruktural eta semantikoak azaldu ditzakegula pentsatzen du Ormazabalek (2008). Bere lanetik hartutako (29) eta (30) adibideetan argi ikusten da kausa dela inkoatibo eta erreflexiboak bereizten dituen: inkoatiboak kausa biziduna eta bizigabea hartzen dituen arren, erreflexiboak ez du bizigabea onartzen. Hona hemen Ormazabalen (2008: 22) adibideak:

- (29) a. Norak itsasontzia/laguna hondoratu zuen.
  - b. Itsasontzia/laguna hondoratu zen.
- (30) a. Norak harria/laguna uretara bota zuen.
  - b. Laguna/\*harria uretara bota zen.

Hori horrela izan dadin, egitura kausatiboa erreflexibatze prozesuaren ondoren ere mantendu behar da.

Kausatibo aldizkatzean parte hartzen duten ezakusatiboetan kausari dagokion geruza mantentzen dela frogatzeko Ormazabalek (2008) modifikatzaile agentiboak deritzonak erabiltzen ditu. (31) adibideak erakusten duenaren arabera, aldizkatzeko aditz ezakusatiboak *bere kabuz* adizlagunarekin eta antzekoekin ager daitezke, izan ere, erreflexibatze prozesu baten ondoriozko aditzak diren aldetik, egoera aldaketaren kausak eta jasaleak erreferentziakide izan behar dute. Hari beretik, (32)-k erakusten digu aldizkatzeko aditz ezakusatiboek ez dutela kanpoko kausa adierazten duten sintagmarik onartzen, hauek ez diotelako erreferentziarik egiten egoera aldaketaren jasaleari. Honenbestez, honek erakusten digu egoera aldaketaren kausa eta jasalea bera dela, eta beraz, kausa proiektio bat badagoela aldaera ezakusatiboetan ere.

- (31) Lagunak bere kabuz iritsi ziren.
- (32) \*Lagunak gurasoez iritsi ziren.

Horrez gain, kausaren egitura estrukturaliki falta dela argudiatzeko erabiltzen den beste argudioetako bat helburu perpausen eta *nahita* eta antzeko adizlagunen ingurukoa da.

Baina horren ordez, kausatiboaren aldizkatzean sartzen diren aditzen kausa oso malgua dela erakusten du argudio horrek. Kontra egiteko aipatuko dudan argudioaren azalpena eman aurretik, aipatzekoa da argumentuak egilea izan behar duela beti *nahita* eta antzeko adizlagunek erreferentzia egiten diotenean; eta helburu perpausei dagokienez, hauen subjektua perpaus nagusiko egileak kontrolatu behar duela ere gogoratu behar da. Hau oso argi ikusten da (33) adibidean, non *atea* ezin den *nahita* adberbioak eskatzen duen egilea izan eta gainera ez duen helburu perpausaren subjektua kontrolatzen. Ormazabalek (2008) hemendik ateratzen duen ondorioa da jasalea den *ateak* ez dituela egile propietateak helburu perpausaren subjektua kontrolatzeko eta adberbioak eskatzen duen egilea izateko, baina honek ez duela inondik inora erakusten erreflexibatze eragiketaren ondorioz geruza kausatiboa ezabatzen dela.

(33) \*Atea nahita ireki da gelan argia sartzeko.

Gainera, badaude adibide gutxi batzuk non jasaleak aipatu egiturak onartzen dituen, hauetan jasalea kausa ere delarik. Ormazabalek (2008: 26) horrelako adibide bat eskaintzen digu:

(34) Ezezagun bat hurbiltzen zaion bakoitzean, nahita biltzen da bere baitara bere burua babesteko asmoz.

Bestalde, Chierchiak (2004) eta Reinhartek (2000) proposatzen dutenaren arabera, erreflexibatze prozesuaren ondoren eratuko den inkoatiboaren egitura hipotesi klasikoan proposatzen den egituraren antzekoa izango da, (35) adibideak ondo erakusten duen moduan.

(35) a. Kamiseta zikindu da.

b.  $\lambda x$  [bihurtu zikin (x)] (kamiseta)

Baina (36) adibideari erreparatuz gero, konturatuko gara hori horrela izatea ezinezkoa dela. (36)-eko elkarrizketan, aitak ukatzen duena ez da kamiseta zikindu izana, kamiseta bere kabuz zikindu izana baizik. Hau da, ez du egoera aldaketa ukatzen, egoera aldaketa horren kausa berezkoa izatea da ukatzen duena. Ondorioz, inkoatiboaren egiturak ezin du (35)-ean irudikatutakoa izan, honetan ez baitago (36) adibidean aitak ukatzen duen kausa horren arrastorik.

(36) Alaba: Kamiseta zikindu da.

Aita: Kamiseta ez da zikindu, zuk zikindu duzu.

Horiek horrela, Ormazabalek (2008) proposatzen duenaren alde eginez, esango dut inkoatiboaren egitura (37) bezalako baten antzekoago dela, hau da, kausatiboaren egituratik gertuago dagoela.

(37)  $\lambda x [x \text{ arazi } [\text{bihurtu } [\text{zikina } (x)]]]$

Azken argudioa egitura koordinatuen inguruan harilkatua da. Horrelako egituretan, erlazio tematiko ezberdina duten bi elementu konbinatzea ez da onartzen. Baina Ormazabalek (2008: 30) (38) bezalako adibide batekin erakusten du, aldizkatzeetako aditz kausatiboa eta inkoatiboa koordinatzeko ez dagoela arazorik. Koordinatzen diren egiturak berdinak izan behar diren heinean, honek erakusten digu biek egitura bera izan behar dutela, eta beraz, aldaera inkoatiboak ere baduela kausa adierazten duen egitura.

(38) Galdera: Nork igo ditu umeak?

Erantzuna: [Albertok eta nik Nora eta Alaia,] eta [Maddi bera bakarrik]

Laburbilduz, euskaraz eta inguruko hizkuntzetan kausatibo aldizkatzea ezakusatiboen formatik abiatzea ezinezkoa dela erakutsi dut eta norabidea kontrakoa dela defendatu, hau da, kausatibotik abiatuz ezakusatiboetara iristen dela erreflexibatze prozesu baten bidez. Prozesu horretan geruza kausatiboa ezabatzen ez dela ere argudiatu dut.

#### **4.2. Kausatibo morfologikoa**

Kausatibo lexikoa nola eratzen den azaldu ondoren, kausatibo morfologikoaren eratzea azalduko dut, horretarako Deustuko Mintegiak (1989) egindako lanaz baliatuz. Bi kausatibo mota hauen prozesuak guztiz desberdinak direla konturatuko gara, lehen aipatu bezala, bata elkarketa bidez sortua delako eta lehena, berriz, kausatibo esanahia bere baitan daramalako.

Kausatibo morfologikoa definitzerakoan aipatu dut sintaktikoki bakuna den arren, morfologikoki konplexua dela. Hurrengo atalean ikusiko dugu buruz-buruko mugimendua dela horren arrazoi, mugimendu honek ematen baitio itxura bakuna sintaxian.

#### 4.2.1. Eraketarako mugimendua

Kausatibo morfologikoa azaltzeko proposamen ezberdinak daude. Horietako bat Baker-ek (1988) planteatutako inkorporazio-analisisia da, Rol-thematikoen Ezarketaren Uniformitatean oinarrituta dagoena. Azken hipotesi honen arabera, egituren S-egitura berdina izango da baldin eta rol-thematikoen ezarketa bi egituretan berdina bada. Hemendik ateratzen den ondorioa da kausatibo morfologikoen S-egituran, A-egituran ez bezala, bi perpaus ezberdin izango ditugula; aditz bakoitzak, (14)-ko *garbitu* eta *-arazi* esaterako, egitura tematiko ezberdina duelako. Argumentuen theta-rolak sintaxian esleitzen diren aldetik, honek iragartzen du aditz elkarketaren zati bat sintaxiaren barnean ematen dela, eta ondorioz badagoela sintaxiaren eta morfologiaren arteko harremana. Hortaz, A-egituran aditz bakarra izatera iristeko prozesua sintaktikoa da, ondoren morfologian islatuko dena. Goian aipatutako Bakerren (1988) proposamenak dio prozesu hori buruz-buruko mugimendua dela.


Euskarazko kausatiboa morfema uztartua da, *-eraz(i)*-k aditzari lotuta agertu behar baitu, ezin da bera bakarrik ageri. Honek esan nahi du bietako batek besterantz mugitu behar duela; euskaraz menpeko aditza izango da mugituko dena, aditz nagusia den *-eraz(i)* mugituko balitz utzitako aztarna aitzindaririk gabe geldituko litzatekeelako. Mugimendua bi motatakoa izan daitekeela esaten digu Deustuko Mintegiak (1989): buruz-burukoa edo ESPEZerako mugimendua. Lehena, maila bereko kategorien artean soilik ematen den mugimendua da, buru batek bestea bereganatzen duelarik. Kategoria Isilaren Oinarria-ren (KIO) arabera, X buru batek Y burua beregana dezake soilik Xk Y gobernatzan badu. Bestalde, Xk Y bereganatzen badu, Xk Yk jatorrizko egongunean gobernatzan zuen guztia gobernatuko duela esaten du Baker-en Gobernu Gardentasunaren Ondorioak; horrela X aditzak gobernatzan dituen argumentu guztiei ezarriko die kasua. Deustuko Mintegiaren (1989) arabera morfologikoki konplexuak badira ere perpaus bakunen itxura hartzen dute buruz-buruko mugimendua egiten dutelako. (39) dugu mugimendu mota honen adibide.<sup>5</sup>

(39)


DenbS


---

<sup>5</sup> (39) eta (40) zuhaitzek ez diote gaur egungo ikuspegiari jarraitzen, aurrerago ikusiko dugun ESPEZerako mugimendua ez delako egitura horretara egokitzen; buruz-buruko mugimenduak, berriz, ez du arazorik erakusten. ESPEZerako mugimendua baztertu eta buruz-burukoaren alde egingo dudanez, kausatibo morfologikoen egitura sintaktiko gaurkotua onartzen dut. Proposatu da egitura kausatibo morfologikoetan ez dagoela Konplementatzaile Sintagmarik eta ezta Inflexio Sintagmarik ere ez.



Menpeko aditza aditz nagusira mugitzeko beste aukera bat dago: Aditz Sintagma osoa Konp-ESPEZera mugitzea eta hemendik Aditz Sintagma nagusira. (40) da honen adibide. Mugimendu hauek onargarriak dira utzitako aztarnak egoki gobernatu baidate. Aditza ESPEZera mugitzen denean hesigai bakarria Inflexio Sintagma izango litzateke, baina bere azpian dagoen beste hesigai batetik hartu behar duenez hesitasuna, eta aditz sintagma mugitu ondoren ez denez gelditu islapen nagusirik Inflexio Sintagmaren azpian, ezin du hesigai izan.





Beraz, Gramatika Unibertsalak bi mugimenduak onartzen ditu, baina ondoren zenbait argumentu aipatuko ditut euskarazko gramatikak buruz-buruko mugimendua hobesten duela erakutsiko dutenak; argudio hauen iturria Deustuko Mintegiak (1989) egindako lana da. Axularren *bere* deituko duguna lehenbizi, galdetzaileekin zerikusia duena ondoren eta uztardura-esparruaren inguruan harilkatua dena azkenik.

Axularren euskalkian *bere* eta *haren* izenordainek ez dute erabilera bera, *bere* bezalako izenordain indartuak bihurkariak dira. Eta ondorioz, *bere* aitzindari esaldi berekoa denean eta inflexioan marka daitezkeen kasuekin bakarrik agertzen denean erabili daiteke, hau da, ergatibo, absolutibo eta datiboarekin. Beraz, izenordain bihurkarien uztardura-esparrua beraien perpauseko inflexioa izango da.

(39)-an ikus daitezkeen moduan, buruz-buruko mugimenduan menpeko aditza Inflexio burutik pasatzen da bertan aztarna utziz; eta eratzen den aditzak menpeko buru guztiak bereganatzen ditu, Inflexio burua horien artean. Egitura honen uztardura-esparrua perpaus nagusiarena izango da, non eraturako aditzaren argumentuak markatzen diren.

(40) adibidean, aldiz, aditza ez da Inflexio burutik pasatzen eta ondorioz, menpeko Inflexioa beheko perpausean gelditzen da.

Gauzak horrela, lehen mugimenduaren arabera, menpeko subjektuaren uztardura-esparrua inflexio nagusia izango da; baina bigarren mugimenduak aurreikusten duenaren arabera, ordea, menpeko inflexioa izango da. Beraz, menpeko subjektua anafora bat izatekotan ESPEZERako mugimenduak erakusten duena ezinezko izango litzateke. Izan ere, gorago aipatu bezala, bihurkarien aitzindari perpaus berean egon



behar du, eta hemen menpeko subjektua eta bere aitzindari litzatekeen subjektu nagusia uztardura-esparru ezberdinean daude. Ez, ordea, buruz-buruko mugimenduan; hau zilegi da bi subjektuak inflexio-esparru berean baitaude.

Bi mugimendu hauen beste ezberdintasun bat galdetzailetan gelditzen da agerian. (39) eta (40) adibideek erakusten dutenez, buruz-buruko mugidan ESPEZ hutsik dagoen bitartean, bestean aditz sintagmak betetzen du gune hori. Honek esan nahi du menpeko subjektua NZ-hitza izatekotan ezin litekeela hemen gelditu eta aztarna utzi perpaus nagusiko ESPEZera igo aurretik, eta honela KIOren bortxapena gertatuko litzateke. Horrenbestez, ezaugarri honen arabera ere buruz-buruko mugimendua da zuzena.

Azken argudioa uztardura-esparruari dagokio. Elementu baten uztardura-esparrua gainetik daukan lehenengo subjektuarena da (Deustuko mintegia, 1989). A-hatsarreak adierazten du anaforek uztartuta egon behar dutela esparru honen barnean, B-hatsarrearen arabera, berriz, izenordainek aske egon behar dute. Lan honetan ikusten ari garen hipotesiari dagokionez, anaforek buruz-buruko mugimenduaren egokitasuna erakusten dute, baina izenordainek ESPEZeko mugimenduarena. Hortaz, hemen anaforei buruz arituko naiz, aurreko argumentuek erakutsi diguten bezala, arrazoi gehiago daudelako euskal gramatikan buruz-buruko mugimendua egokiena dela pentsatzeko.

Menpeko aditzaren mugimenduaren ondoren argumentuen egonguneak mantendu dira buruz-buruko mugimenduan eta beraz, menpeko objektuen uztardura-esparrua menpeko perpausa izaten jarraitzen du; nahiz eta menpeko subjektuarena perpaus nagusia izango den. Dena den, ESPEZerako mugimenduaren ondoren argumentuen egonguneak ez dira bere horretan mantendu eta ondorioz menpeko objektuen uztardura-esparrua perpaus nagusia izango da, hauek goitik daukaten lehen subjektua perpaus nagusikoa baita.

Aipatu berri dut anaforek uztarturik egon behar dutela beren uztardura-esparruan, eta honek esan nahi du esaldi berekoa izan behar duela bere erreferentziakide den sintagma. Horregatik, (41) bezalako adibide batean ez da zuzena izango *irakasleek* eta *elkar* erreferentziakide izatea, baina bai *ikasleak* eta *elkar*. (39)-k azaldu dezake esanaz lehenengo kasuan A-hatsarrea urratzen dela *irakasleek* ez delako *elkar*-en uztardura-esparrukoa, baina *ikasleak* bai. ESPEZ-erako mugimendua onartuko bagenu ordea, ezin esango genuke A-hatsarrea urratu dela, mugimendu honek eragindako aldaketen

ondorioz menpeko objektuen uztardura-esparrua perpaus nagusia litzatekeelako, eta hortaz analisi honetan *irakasleek* ere *elkar*-en uztardura-esparruan legokeelako.


(41)  $Irakasleek_i$   $ikasleak_j$   $elkar_{*ij}$  besarkarazi zituen.

(42)  $Liskar$   $handiak_i$   $gehiago$   $maitarazi$   $zigun$   $elkar_i$ .

(43)  $Norak_i$   $bere_i$   $burua$   $ezagutaraziko$   $du$ .

Hala ere, badaude zenbait perpaus bi mugimenduen alde egiten dutenak, (42)-an esaterako, menpeko perpausoko subjektua den anaforak perpaus nagusiko subjektuarekin egiten duenez erreferentzia, lehen esan dugunaren arabera, ESPEZerako mugimenduan ere izango da onargarria. (43) bezalako egitura inpersonalak ere bi mugimenduekin azaldu daitezke, hauetan menpeko subjekturik ez dagoenez, uztardura-esparrua defini dezakeen lehen subjektua perpaus nagusikoa izango delako. Baina, batzuetan biak onargarriak badira ere, buruz-buruko mugimendua izango da egitura guzti hauek ondo azaldu ditzakeen bakarra. Beraz, argudio honek ere (39)-ren alde egiten du.

Buruz-buruko mugimendua gertatzen dela onartuta, kausatibo morfologikoetarako (44) adibidean bezalako egitura sintaktikoa proposatzen du Harley-k (2008). Izan ere, aipatu dut gaur egun Inflexio Sintagma eta Konplementatzaile Sintagma gabeko egitura baten alde egiten dela.



Beraz, elkarketa bidez sortzen zela bagenekien arren, dirudiena baino konplexuagoa den prozesu hori zehazki nola ematen den ezagutzen laguntzen digu Ortiz de Urbinak (2003). Baina kausatibo morfologikoak nola funtzionatzen duen jakiteko beharrezkoa da kausatibo mota honetan kasu-ezarketa nola ematen den ezagutzea ere. Ze kasua ezartzerako orduan perpaus kausatiboek edozein perpaus ditransitibo bezala funtzionatzen badute ere, sakoneko egituran bi perpaus daudela proposatu dugu; eta beraz, hau azaltzea beharrezko iruditzen zait kausatibo morfologikoaren azalpena osatzeko. Aurrerantzean ikusiko dugu kausatiboak aditz motaren arabera kasu bat edo beste ezarriko diela hartzen dituen argumentuei, eta euskalkien arabera alternantziak daudela ere erakutsiko dut.

#### **4.2.2. Kasu ezarketa kausatibo morfologikoetan**

Lehen aipatu dut kausatibo morfologikoek sakoneko egituran bi perpaus izan arren, itxura bakuna dutela; eta kausatiboaren kasu ezarketa gainontzeko perpaus ditransitiboren kasu ezarketa bezala gauzatzea da horren arrazoi nagusia. Gauzak horrela, Deustuko Mintegiak (1989) dio, gainontzeko perpaus ditransitiboetan bezala, egitura kausatiboetan ere kasu ezarketa azaleko egituran emango dela. Hau da, buru-mugimendua gertatu ostean ezarriko da eta, beraz, eratorritako aditz konplexuak ezarriko die kasua gobernatzen dituen argumentuei. Esan bezala, aditz motaren arabera kasu bat edo beste ezarriko zaie argumentuei, euskalki bakoitzak bere berezitasunak dituelarik. Lan honetan lehenbizi aditz iragangaitzen kasua azalduko dut, ondoren iragankorra eta azkenik aditz inbertsonalena.

Lehenik, beraz, aditz iragangaitzekin hasiko naiz; hau da, argumentu bakarreko aditzekin. Ezaguna da iragangaitzen artean bi sail bereizten direla: ez-ergatiboak, non dagoen argumentua egilea den, eta ez-akusatiboak, non argumentua ez den egilea. Azken hauei dagokienez, jarrera ezberdinak antzematen dira euskalkietan kasua aukeratzeko orduan. Araziak absolutibo marka hartuko du ekialdeko euskalkietan eta mendebaldean egilea bizigabea denean absolutiboa hartzen badu ere, egilea biziduna denean datiboa hartuko du. Bereizketa hori egiteko arrazoia semantikoa dela onartuko dut lan honetan, Deustuko Mintegiak (1989) dioenari jarraiki; zeharkako kausatiboaren eta kausazio zuzenaren arteko ezberdintasuna izan daitekeela proposatzen du lan honek, hizkuntza askotan kontuan hartzen dena. Egiazki, arazia bizigabea denean kausa zeharkakoa izango da, arazleak ezin baitio ekintza bat egitera behartu edo bultzatu; arazi

bizigabeei ekintzak gertatu egiten zaizkie. Arazia biziduna denean, aldiz, arazleak arazia ekintza hori egitea eragin dezake. Horrela, kausatiboa zuzena denean datiboa erabiliko da, eta zeharkakoa denean absolutiboa.

(45) Irakasleak umeari klasetik irtenarazi dio.

(46) Haizeak ate asko itxiarazi zituen.

Euskaltzaindiak, mendebaldeko euskalkiek egiten dutenaren kontra, absolutiboa hobesten du bi egoeretan. Izan ere, arazia datiboarekin markatzeak onargarriak ez diren perpausak sor ditzake batzuetan, jadanik argumentu datibo bat duten perpausetan hain zuzen; datiboaren bikoizketa gertatzen baita. Horrelakoetan, Ortiz de Urbinak (2003) azaltzen du datiboak helburu rola badu ablatibo marka ezarriko zaiola eta datiboa araziarentzat gordeko dela, (47) horren erakusgarri. Aldiz, (48)-k erakusten digu datiboa esperimentatzailea denean hau joango dela datiboaz markaturik; baina honen theta-rola esperimentatzaile izatetik arazi izatera pasatuko da egitura kausatiboan.

(47) Damuak nigana etorrarazi dio Norari.

(48) Nekeak azterketa zena baina zailago irudiarazi zion Loreari.

Esan bezala, iragangaitzen artean ez-ergatiboak ditugu ere, intrantsitiboak direnak baina *\*edun* laguntzaile trantsitiboaz lagundurik agertzen direnak, eta ondorioz subjektutzat *egilea* dutenak. Hauetan, arazlea orokorrean datiboan agertzen bada ere, ez-akusatiboetan bezala bariazio dialektala sumatzen da zenbaitetan. Baina (51b) adibideak agertzen duen bezala, arazia bizigabea denean bakarrik ager daiteke absolutiboa.

(49) Amak alabari hamabiak baino lehen etorrarazi dio.

(50) Amak alaba hamabiak baino lehen etorrarazi du.

(51) a. Haize indartsuak paretari erorarazi du.

b. *\*Haize indartsuak paretari erorarazi dio.*

Bigarrenik aditz iragankorrak ditugu, zeintzuetan bi sail bereizten diren ere. Alde batetik monotrantsitiboak ditugu, subjektuaz aparte beste objektu bat ere hartzen dutenak. Hauek egitura kausatiboetan egilea datiboan dutenak eta aditzarekin komunztadura egiten dutenak dira. Honen adibide dugu (52):

(52) Batidoa edanarazi dio aitak alabari.

Beste aldetik, kausatibo ditransitiboak ditugu, aditzak hiru argumentu gobernatzen dituen egitura. Ondorioz, arazoa sortuko da, hiru argumentuen aurrean aditzak bi bakarrik ezarri baititzake. Arazo honen konponketarako Deustuko Mintegiak (1989) esaten du irtenbide erabilienean ohiko bi kasuak menpeko aditzaren osagarriari ezartzen zaizkiela, eta araziari sakoneko egituran esleitzen den kasu berezkoa egozten zaiola. Berezko kasua ezartzeko beharrezkoa da buru horrek theta-rola ere ezartzea sintagma berari. Kasu berezi hau datiboa da eta ondorioz, datiboaren bikoizketa ematen da, helburua den osagarria ere datiboaz markatuta baitago. Edonola ere, (53)-n ikus daiteke menpeko aditzaren osagarriak bakarrik egingo duela komunztadura aditzarekin, inola ere ez bi argumentuek; izan ere, araziaren kasua berezkoa den aldetik, ez du eragin sintaktikorik eta ondorioz ezin du komunztadurarik egin aditzarekin. Bien marka agertuko balitz aditzean esaldia ulertzeko zailtasunak edukiko lituzke hitzunik; hortaz, (54)-n bezala agertzen diren bi datiboak pertsona eta numero berekoak direnean, esaldia ambigua izango da. Horrelako kasuetan helburua eta egilea, bakoitza zein den argi uzteko hitzen ordena erabiltzen dela esaten du Urbinak (2003), non ezkererago dagoena izango da helburua beti.

(53) a. Gurasoek (guri) lehengusuei jostailuak emanarazi dizkigute.

b. \*Gurasoek (guri) lehengusuei jostailuak emanarazi dizkiete.

(54) Gurasoek anaiei lehengusuei jostailuak emanarazi dizkiete.

Kasu ezarketari dagokion atalarekin bukatzeko aditz inpertsonalen sailean zer gertatzen den azalduko dut. Aditz inpertsonalak ageriko eragilerik ez dutenak dira, aditzean ere ez baita honen kasu-markarik agertzen; beraz, kausatibo inpertsonala arazlea nor den ez aipatzean datza. Nor-nork zein nor-nori-nork saileko aditzetan, hirugarren pertsonako ergatibo plurala den NORK izango da aditzean markatu gabe geldituko dena.

(55) Zineman jende isilarazten da.

Bestalde, nori den egilea ere utzi daiteke isilpean. Horrela, honek ez du komunztadura egingo aditzarekin, horrela izatekotan helburu rola ordeztatu egile rola izango balu bezala interpretatuko genukeelako. Zenbait kasutan biak, bai eragilea eta baita egilea ere utzi daitezke isilpean.

Kausatibo inpertsonaletan sakoneko objektuak subjektu normalen ezaugarriak dituztela esaten du Deustuko Mintegiak (1989) eta, beraz, kausatibo ezakusatiboek bezala

funtzionatzen dutela. Ezberdintasuna da kausatibo inbertsonaletan, pertsonaletan ez bezala, objektua anafora denean arazlearekin erreferentziakide izan daitekeela. Hau argi ikusten da Deustuko Mintegiak (1989: 105) emandako hurrengo adibideetan:


(56) a. Nik neure burua hilaraziko dut.

b. \*Nik neure burua Mikeli hilaraziko diot.


### 4.3. Kausatibo analitikoa

Gorago esan dut kausatibo analitikoa eta morfologikoa, biak, morfologikoki konplexuak direla. Gainera bietan arazlea eta mendeko predikatua buru sintaktiko ezberdinetan proiektatzen dira. Baina kausatibo morfologikoetan ez bezala, analitikoetan mendeko aditzak eta *-arazik* ez dute unitate morfologikoa osatzen. Honek esan nahi du kausatibo morfologikoei itxura bakuna ematen dien buruz-buruko mugimendua analitikoetan ez dela gertatzen. Aditzek bat egiten ez dutenez, argi dago kausatibo analitikoak morfologikoki eta baita sintaktikoki konplexuak direla.

Lehenago aipatu dut buruz-buruko mugimenduan buru batek beste bat bereganatzen duela; baina, KIOren arabera, buru batek gobernatzen duen beste buru bat bakarrik beregana dezake. Kausatibo analitikoetan baldintza hori betetzen ez denez, mugimendu hori ez da zilegi. (57)-ean argi ikusten da hau: *egin* aditzak ezin du *garbitu* bereganatu Konplementatzaile Sintagma hauen arteko hesigai delako eta ondorioz *egin*-ek ez duelako *garbitu* gobernatzen<sup>6</sup>.



<sup>6</sup> Antzeko egitura proposatzen da perpaus nominalizatuekin eratutako kausatibo analitikoetarako.



Bestalde, gogoratu B-hatsarrearen arabera izenordainek aske egon behar dutela beren uztardura-esparruan. Deustuko Mintegiaren (1989: 98) (58)-ko adibide morfologikoan *Jonek* eta *Mikeli* ezin dira *bere*-ren erreferentziakide izan izenordainaren uztardura-esparruaren barnean daudelako; honek adierazten du perpaus osoak uztardura-eremu bakarra osatzen duela. (59)-n ere *bere* izenordainak ezin dio erreferentzia egin *Mikel*-i. Kausatibo analitikoa diren *-tzera behartu* perpausak objektuzko kontrol egiturak dira, honek esan nahi du perpaus nagusiko objektu zuzenak menpeko perpausoko PRO subjektu isila kontrolatzen duela eta halabeharrez erreferentziakide izan behar direla. PRO eta *bere* uztardura-esparru berekoak dira eta ezin dira erreferentziakide izan, eta ondorioz, *Mikel* ezin daitekeela izan *bere*-ren erreferentziakide.

(58)  $Jone_k_i$   $bera_{*i} *j$  hilerazi zion  $Mikel_j$ .

(59)  $Jone_k_i$   $bera_i *j$  hiltzera behartu zuen  $Mikel_j$ .

Hala ere, (59)-an ez dago uztardura-esparru bakarria, menpeko perpausak uztardura-esparru beregaina osatzen baitu; horrela *Jonek* ez dagoenez *bere*-ren uztardura eremuan, izenordainaren aurrekaria izan daiteke. Honek erakusten digu kausatibo analitikoarekin eratutako (59) perpausa konplexua dela, eta hortaz kausatibo mota hau semantikan eta morfologian ez ezik, syntaxian ere konplexua dela.

Axularren *bere* izenordaina bihurkariak ondorio berera garamatza. Esan bezala, Axularren euskalkian *bere/haren* izenordainen arteko bereizketa egiten dela. Lehena, *bere* erreferentziakidea esaldi berekoa denean eta hau absolutibo, ergatibo edo datiboa denean bakarrik erabiltzen da; gainontzeko kasuetan *haren* darabilte. Hortaz, perpaus kausatibo batean *bere* erabiltzen dutenean arazlea honen esaldi berekoa izan beharko da;

eta honek esan nahi du perpausa bakuna izango dela. Horrela perpaus kausatiboetan Axularren euskalkian *bere* erabiltzen dutenean bakuna izango da, eta *haren* darabiltenean, berriz, konplexua. (60a) perpausean *Norak* ezin du *bere* bihurkariaren aurrekaria izan, bai ordea (60b)-ko *Norak haren*-ena. Honek erakusten du kausatibo analitikoa konplexua dela.

(60) a. \*Norak<sub>i</sub> Aneri bere<sub>j</sub> liburua ekartzea eginarazi zion.

b. Norak<sub>i</sub> Aneri haren<sub>i</sub> liburua ekartzea eginarazi zion.

Bukatzeko, buruz-buruko mugimendua azaltzean aipatutako argudioez aparte, bada beste bat kausatibo lexikoen konplexutasuna ere erakusten duena. Aipatu dut kausatibo mota hau morfologikoki konplexua dela bi aditzek bat egiten ez dutelako, eta hau oso erraz ikusten da (61) bezalako esaldietan, non bi aditzek ez duten zertan elkarren ondoan agertu. Aldi berean, (62)-n objektu zuzena (*mahai zikina*) menpeko perpausetik atera eta perpaus nagusira igotzen badugu esaldi ez-gramatikala lortzen dugu, argumentu hau menpeko perpausetik atera ahal ez izateak erakusten du perpausa ez dela sintaktikoki bakuna. Hortaz, hitz-ordenak ere erakusten digu kausatibo analitikoa sintaktikoki eta morfologikoki konplexua dela.

(61) Norak ikasleari eginarazi zion mahai zikina garbitzea.

(62) \*Norak mahai zikina ikasleari eginarazi zion garbitzea.

## 5. Ondorioak

Kausatiboa eragile batek edo egoera baten aldaketak eragindako ekintza dela esan dugu eta gero hiru kausatibo mota bereizi ditugu lan honetan. Sintaktikoki zein morfologikoki konplexua den kausatibo analitikoa; bai sintaktikoki bai morfologikoki bakuna den kausatibo lexikoa, ondoren; eta azkenik, ikuspegi sintaktikotik bakuna baina morfologikotik konplexua den kausatibo morfologikoa. Aldi berean, hiru kausatibo motak dira semantikoki konplexuak.

Kausatiboaren ezaugarriei dagokienez, aipagarriena da ezin dela edozein aditzekin eratu, egoera-aditzak ez baitira oro har kausatiboak izango. Gainera kausatibo lexikoa nahiko zorrotz agertuko da aditzak aukeratzerako orduan: inkoatibo/kausatibo alternantzian sartzen diren egoera aldaketako aditzak, toki-aldaketako aditzak eta psiko-aditz kausatiboetako batzuk bakarrik onartuko ditu. Era berean, interesgarria da



gogoratzea kausa zuzena denean hiru kausatibo motak erabil daitezkeela baina kausa zeharkakoa denean lexikoa ezin dela erabili.

Beraz, inkoatibo/kausatibo alternantziako aditz iragankor zenbaitek osatuko dute kausatibo lexikoa. Aldizkatze horretan, analisi klasikoak defendatzen duenaren arabera, aldaera inkoatiboa da bi horien oinarritzko egitura eta honetatik deribatzen da kausatiboa. Ikuspegi sintaktikotik abiatzen den berrinterpretazio konstrukzionalistak ere horren alde egiten du, baina kausazio aldizkatzea lexiko egituren beharrea josteran kokatzen du. Nire lanak, Ormazabalek (2008) ematen dituen argudio enpiriko eta teorikoei jarraiki, norabidea bestelakoa dela defendatu du; hau da, kausatibotik abiatzen dela inkoatibora iristeko. Aldaketa hori erreflexibatze prozesu baten bidez ematen dela ikusi ondoren, prozesu honetan kausa predikatua ez dela ezabatzen erakusteko helburuarekin egitura inkoatiboetan ere kausa badagoela erakutsi duten zenbait argudio aipatu ditut (4.1.3. atalean); aldizkatzeko aditzen eta aditz erreflexiboen arteko bereizketaren ingurukoa, modifikatzaile agentiboen ingurukoa, helburu perpausen zein *nahita* edo antzeko adizlagunak dituzten perpausen ingurukoa eta tesutinguru kontraesankorren ingurukoa.

Kausatibo morfologikoari dagokionez, esan dut hitz elkarketa bidez eratzen den kausatiboa dela. Honek esan nahi du morfologikoki konplexua dela, bi unitate morfologiko ezberdinez osatuta dagoelako; baina mendeko aditzaren mugimendu bati esker itxura bakuna hartzen du sintaxian. Mugimendu hori buruz-buruko mugimendua deritzona dela erakutsi digu Deustuko Mintegiak (1989) Axularren *bererekin*, galdetzaileekin eta anaforekin (4.2.1 atala). Izan ere ikusitako argumentu guzti horiek buruz-buruko mugimenduaren alde egiten dute, ESPEZ-erako mugimendua aldeztan duen salbuespen uztardura teoriaren kasu gutxi batzuk bakarrik direlarik. Hortaz, bestelako egituretan ere ematen den buruz-buruko mugimendu hori da kausatibo morfologikoari egitura bakuna ematen diona.

Gauzak horrela, kausatibo analitikoa morfologikoki ez ezik sintaktikoki ere konplexua den aldetik, morfologikoetan ematen den buruz-buruko mugimendu hori ez da ematen kausatibo mota honetan. Hau argudiatzeko KIO, izenordainak, Axularren *bere* eta hitz-ordena erabili ditut 4.3. atalean.

Kausatibo morfologikoen kasu ezarketari dagokionez, erakutsi dut egitura kausatiboek bestelako ditransitiboek bezala ezartzen dietela kasua beren argumentuei. Baina

aipatzekoa da araziaren kasua ezberdina izango dela aditzak hartzen dituen argumentu kopuruaren arabera eta euskalki batetik bestera ere txandakatzeak daudela. Horrela, aditz ezakusatiboetan arazia absolutiboan markaturik ageriko zaigu, mendebaldean egilea biziduna denean izan ezik, horrelako kasuetan datiboaz markaturik agertuko delako. Aditz iragangaitza ez-ergatiboa denean kasu datiboa da ohikoena baina arazi bizigabeekin bakarrik agertu ahal izango da.

Aditz iragankorrez esan dut bi talde ditugula. Alde batetik, arazorik ematen ez duten monotrantsitiboak, egilea datiboan daramatenak direnak; eta bestetik, ditrantsitiboak. Aditz kausatibo ditrantsitiboetan aditzak hiru argumenturi ezarri behar die kasua, baina aditzek bi kasu ezartzeko ahalmena besterik ez dute. Konponbide modura onartu dut menpeko aditzak bere osagarriei ematen diela dagokien kasua eta meneko subjektua den araziari berezko kasua esleitzen zaiola, berezko kasu hau datiboa delarik. Gauzak horrela, bi datibo izango ditugu baina anbiguetatea saihesteko arazia den datiboak bakarrik egingo du komunztadura aditzarekin.

Egitura kausatibo ditrantsitiboek, beraz, erakutsi digute badela berezko kasu bat, buru batek errol tematikoa ere ezartzen dion sintagma bati bakarrik ezarri ahal izango diona; eta euskararen kasuan datiboa dela berezko kasu hori.

Azkenik aditz inpersonal kausatiboak ikusi ditugu, zeintzuetan arazlea nor den aipatu gabe geldituko den. Hala ere, arazia ere utzi daiteke aipatu gabe zenbait kasuetan; eta zenbaitetan biak ere, bai arazia eta baita arazlea ere.

## **6. Bibliografia**

Baker, Mark (1988), *Incorporation theory*. Chicago: University of Chicago Press.

Chierchia, Gennaro (2004 [1989]), “A Semantics for Unaccusatives and its Syntactic Consequences”. In A. Alexiadou et al., arg. *The Unaccusativity Puzzle*. Massachusetts: Cambridge MIT Press.

Chomsky (1981), *Lectures on Government and Binding: The Pisa Lectures*. Holland: Foris Publications.

Deustuko Mintegia (1989), “Inkorporazioa perpaus kausatiboetan”. In P. Salaburu arg., *Sintaxi teoría eta euskara*. Donostia: UPV/EHU, 89-107.

- Dixon, Robert Malcolm Ward (2000), "A typology of Causatives: form, syntax and meaning". In R.M.W. Dixon eta A. Aikhenwald, arg., *Changing Valency. Case studies in transitivity*. Cambridge: Cambridge Univ. Press, 30-38.
- Euskaltzaindia (1987), *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak-II*. Bilbo: Euskaltzaindia, 60-64.
- Harley, Heidi (2008), "On the causative construction", In S. Miyagawa eta M Saito arg., *Handbook of Japanese Linguistics*. Oxford: OUP, 20-53.
- Ormazabal, Javier (2008), "Kausatibo aldizkatzeak eusakaraz eta inguruko hizkuntzetan". In X. Artiagoitia eta J. Lakarra arg., *Gramatika jaietan. Patxi Goenagaren Omenez*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV-EHU, 643-654.
- Ortiz de Urbina, Jon (2003), "Causatives". In J.I. Hualde & J Ortiz de Urbina arg., *A Grammar of Basque*. Dordrecht: Kluwer, 592-607.
- Oyarçabal, Beñat (2002), "Kausazio Aldizkatzea euskal aditzetan". *Lapurdum* 7, 271-294.
- Pylkkanen, Liina (2002), *Introducing arguments*. Massachusetts: Cambridge
- Reinhart, Tanya (2000), "The Theta-System: Syntactic realization of verbal concepts". *OTS working papers in linguistics* (00.01/TL), Utrecht: Utrecht University. <http://dspace.library.uu.nl/handle/1874/17166>.
- Zubiri, Irati eta Entzi Zubiri (2012): *Euskal Gramatika Osoa*. Bilbo: ikasBook, 548-551.